

Ezpalak

JON TORNER

Zarama is back: birziklapena

INIGO AZKONA



HAMALAU URTE ETA GERO, Zarama musika taldeak eszenatokitara itzultzea erabaki du. *Zarama birziklatua* jarri diote izena birari, eta datarik zehaztu ez duten arren, Iruñean, Bilbon, Donostian eta Gasteizen emango dituzte kontzertuak. “Laster itzuliko gara. Zergatik? Urte askoren ostean, lagunak izaten jarraitzen dugulako eta elkarrekin gaudenean gustura gaudelako. Orain egiten ez badugu, nekez egingo dugulako beranduago, eta gure abestiak bizirik dirautela sentitzen dugulako. Itzuliko gara jakin nahi dugulako gauzak nola egiten diren baldintza egokietan, eta horretarako aukera sortu zaigulako. Baina, zer demontre! Itzuliko gara, batez ere, dibertigarria delako eta entseguetan sasoi-ko gaudela ikusi dugulako”, diote Zaramakoek.

Abian da Bosteko 09 erakusketa

BOSTEKO 09 erakusketa ibiltaria iragan astean jarri zen abian, Erromoko (Getxo) erakusketa aretoan. Martxoaren 14ra arte izango da bertan ikusgai, eta Arrigorriaga, Amorebieta-Etxano, Leioa eta Basauri bisitatuko ditu gero. Aurten, Dora Salazar eskultorearen, Begoña Zubero argazkilariairena eta Jorge Garcia pintorearen obrak bildu ditu Bostekok. Giza figura da erakusketaren ardatza.

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek *Petiri Danbolin* diskoa (Elkar) argitaratu dute. Euskal Telebistan saioak eskaintzen hasi zirenetik 25 urte joan direla ospatu dute pailazoek disko berriarekin, eta pailazo izateaz gain txistulari ere izan direnez, disko honetan garrantzi berezia eman diote musika tresna horri.

Katixa Agirre idazle gazteztarrak *Habitat* ipuin-liburua (Elkar) plazaratu du, Igartza bekaren laguntzari esker. Etxea ardatz duten sei istorio bildu ditu liburu berrian. Pertsonaiek hain goxoa ez den bakardadea parratuko dute, hain zintzoak ez diren maitasun istorioak biziko dituzte, mudantza etsigarriak eta bisita deserosoak agoantatu beharko dituzte, eta batzuek, dena galduko dute etxeak ordezkatzan duen ustezko independentzia horren eskizian.



Aitor Arana legazpiarrak euskarazko narratiba alorreko Irun Hiria saria jaso du, *Oscar eta Sebastian* eleberriri esker; eta Luis Garde iruindarrak euskarazko poesia alorrekoa, *Unplugged* libururagatik. Aranak 25.000 euroko saria eskuratu du, eta 15.000 eurokoa Gardek. Gaztelaniaz, Luis del Romero Sanchez-Cutillasen *Manjar Blanco* nobela eta Rafael Martínez Cuadradorek *El polvo y la ceniza* poesia-liburua saritu dituzte. 25.000 eta 15.000 euro irabazi dituzte, hurrenez hurren.

● **Esther Ferrer artistak *Euskonews & Media* agerikari digitalean:** «Ez dakit zergatik adierazi behar ditudan nire lanean nire konpromiso sozial edo politikoak; hori egitea badago, noski, baina beste bitarteko batzuk ere badaude: kalea, esaterako. Ziur nago, ordea, uste sendoak dituzunean eta ideia batzuen alde egiten duzunean, uste eta ideia horien eragina nolabait nabarmena izaten direla zure lanean. Ni, adibidez, feminista naiz, nire bizitza feminismoz beterik dago, baina horrek ez du esan nahi nahitaez arte feminista modura definitzen dena egiten dudarik. Hala ere, zenbait egoeratan ‘Ez! Askida!’ oihukatze-ko gogoia izaten duzu eta, orduan, zure garrasia artelan modura sortzen da. Artea da? Ez da artea? Galdera hutsala da, protesta baita, baina beste gauza askoren aurrean ere protesta egiten dut; nire amak protesta zaleak ginela esaten zigun».

● **Xabier Peñalver arkeologoak *El Diario Vasco* egunkarian:** «Gipuzkoako Burdin Aroari dagokionez, ezer ez genuela ezagutzen pentsatzen orain guztia dakigula uste izatera pasa gara. Hori akats oso handia da. Administrazioak garai horri dagozkion indusketak babesten jarraitu behar du (...) Ia 30 urte daramatzat arkeologian, denbora guztian ikerketak egiten, eta Gizarte Segurantzaren bost urte kotizatu ditut. Horrekin guztia esaten dut».

● **Carlos Andrés Sánchez Nafarroako Goi mailako Musika Kontserbatorioko irakasleak *Diario de Noticias*-en:** «Gure arazorik handiena zentrotik kanpora dago: Goi mailako arte ikasgaiatzat berezko markoa falta da (...) Nafarroako Goi mailako Musika Kontserbatorioa ofiziala izan eta bere ikasleei goi mailako tituluak eskaini arren, Bigarren Hezkuntzaren erregimen berean sartuta dago. Badirudi horrek ez duela Hezkuntza saila kezkatzen».